Gehiago eta hobeto ikasiko dut

Ikaslearen jakin-mina pizten dugu bere emoziotik abiatuta.

“Gehiago eta hobeto ikasiko dut emozionatzen banau eta jakin-mina pizten badit”.

Manipulatuz ikasi.

“Utzi egiten eta gehiago eta hobeto ikasiko dut”.

Metodo zientifikoa erabiltzea.

“Utzi akatsak egiten eta gehiago eta hobeto ikasiko dut”.

Ikaslea protagonista bihurtzen da bere ikasketa prozesuan.

“Garrantzitsu bazait, komunikatzeko erabil badezaket, gehiago eta hobeto ikasiko dut”.

itb
Ikaskuntza Testuinguru Berria La Salle

Bizi ezazu!

La Salle ikastetxeen erreferentzia markoa da eta ikaskuntzaren oinarrian jartzen ditu konpetentziak, esperientziak, ikaskuntza zeharkakoa eta instrumentala, izaera soziala eta adaptazioa; betiere, ikastetxe bakoitzaren testuingurura moldatuta.

La Salle

lasalleikastetxeak.org

itb
Ikaskuntza Testuinguru Berria La Salle

La Salle

Hezkuntza eraldatuz, mundua eraldatzen dugu.

ITB gakoak Haur Hezkuntzan

Haurra gure proiektuaren erdigune

La Salle ikastetxeek abian dute Ikaskuntza Testuinguru Berria (ITB).

Testuinguru berriak gure eskolaren eraldaketa pedagogikoa dakarkigu, ikasteko prozesua beste eredu batean oinarritzea eta printzipio pedagogiko sendoak zein ikasteko eremu desberdinak erabiltzea, bizi dugun errealitatea eraldatu eta gure etorkizuna eraikiko duten pertsonak hezteko.

ITB La Sallen

Ikasleak dira gure proiektuaren erdigune, hezkuntza indibidualizatu eta pertsona bakoitzaren beharrei egokitzeko.

Hazteko eta ikasteko erritmoak errespetatzen ditugu eta hazten eta ikasten ari den horrek ondoan gaitu beti.

Familiekin batera lan egiten dugu, gure proiektuaren oinarrietako bat baitira.

Barnetasuna eta emozioen kudeaketa lantzen ditugu.

Ikasketa kooperatiboa erabiltzen dugu, taldean lan egiten ikasteko.

Betiko ikasgelak eraldatu ditugu, ikasteko prozesuaren beste elementu bat baitira espazioak.

Mugimendua lantzen dugu egunero hainbat dinamikaren bidez, haurrek ikasteko tresna garrantzitsua baita.